

8) FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehenik eta behin balio-proposamena sortzeko funtsezkoa da ekoizpena, hau da, etxetresnaren diseinua paperean egitea, ekoiztea eta bezeroen artean banatzea. Gero, oso garrantzitsua den jarduera baita online denda zein denda fisikoa kudeatzea, mantentzea eta sustatzea. Azkenik, bezeroen edo edozeinen arazoa konpontzea edo irtenbide bat ateratzea da, hau da, gure produktuekin pertsonen beharrak ondo asetzea nahi dugu, beraz, denbora luze bat eta gero bezeroa konturatzen bada ez dela bilatzen ari zena eta beste bat nahi duela, logikoki guk ez diogu bueltan hartuko eta ordainduko, baina bai produktu horren balioaren erdia bueltatuko genioke edo zerbait antzekoa. Baina lehen esan dugunez, denbora laburrean konturatzen bada ez dela konforme geratu erositako produktuarekin, guk beste bat hartzeko aukera emango genioke, betiere prezio berekoak badira.